



AMEZKETAKO UDALA



COVID-19AREN LARRIALDI SANITARIOAK SORTUTAKO EGOERA EKONOMIKOAREN ONDORIOZ, AMEZKETAKO UDALAK ONARTUTAKO DIRULAGUNTZAK ETA HARTUTAKO ZERGA NEURRIAK

Estatuak martxoaren 14an larrialdi sanitarioa adierazi geroztik, hainbat erakunde publiko, enpresa, famili eta gizabanakoen ohiko jarduerak aldatuta eta aldrebestuta geratu dira. Hilabete hauetako larrialdi sanitarioak, baitere, eragile publiko nahiz pribatu askoren egoera ekonomikoaren okerrerako aldaketak eragin ditu, eta azken asteetan Amezketako Udalak, egoera honen hausnarketa egin ondoren, herriko jarduera ekonomikoentzako dirulaguntzak eskeintzeko eta zerga neurri zehatzak jakinaren gainean jartzeko garaia iritsi da.

Amezketako Udalak amezketarrei Covid-19ak sortutako kalte ekonomikoak leuntzeko Amezketako mikroenpresa eta profesional autonomoentzat bideratutako dirulaguntzak onartu dituenaren berri eman nahi die. Honetarako Udalak 20.000 €ko dirukopurua onartu berri du, eta eskariak diru kopuru hau gailendu ezker, Udalak diru gehiago hornituko du helburu honetarako.

Azken bi hilabeteetan herriko zenbait jarduera ekonomiko itxita edo partzialki itxita egon dira eta Amezketako Udalak jarduera ekonomiko horiei bere laguntza eskeini nahi die, diru kopuru bat emanez. Horretarako Udalak onartu berri ditu dirulaguntza horiek arautuko dituzten oinarriak non jasotzen baitiren dirulaguntza jasotzeko baldintza zehatzak eta informazio hau herriko mikroenpresen titularrei eta autonomoei pertsonalki helaraziko zaie.

Jaso daitezkeen dirulaguntzak jardueran izandako galeren araberakoa izango da eta 800 euro arte iritsi daitezke. Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publikoetatik jaso daitezkeen dirulaguntzekin eta dirulaguntza jasotzeko zenbait agiri aurkeztea beharrezkoa izango da. Esan bezala, horren informazio zehatza Amezketako mikroenpresetako titularrei eta profesional autonomoei zabaldu eta behar diren azalpenak emango zaizkie, eta udal web orrian informazio zehatza jarriko da.

Bestalde, eta lagungarria izan daitekeelakoan, www.amezketa.eus udal web orrian, hasieran eta eskubialdean, *Covid-19 Informazio bilduma* izenburupean, mikroenpresa eta profesional autonomoentzat baliagarria den dirulaguntzen informazioa jasotzen da, zenbait erakunde publiko nahiz pribatuena. Aukerak hor daude eta norberak ikusiko du noraino komeni zaion dirulaguntza bat edo beste eskatzea.

Aipatu krisi egoera dela eta beharrian eta egoera ekonomiko zail batean egon daitezkeen herritarren kasuekin jarraituz, esan behar da Udalak behar diren baliabide ekonomikoak onartuta dituela, baitere, banakako egoera zailei ere erantzuteko. Baliabide ekonomiko horien kudeaketaz udal gizarte zerbitzuak arduratzen dira eta Udaletik egoera zail batean dauden herritarrei gonbitea egiten zaie inolako zalantzarik gabe udal gizarte zerbitzuetara hurbiltzeko eta norberaren egoera azaltzeko. Udalak, sentsibiltate haundienarekin eta diskrezio osoz laguntzen saiatuko da. Kasu hauetan gogoratu behar da ezinbestekoa dela udal gizarte zerbitzuekin aurrez aurre egoteko aurretiko hitzordua hartu behar dela Udalera deituz.

Azkenik, udal zergei dagokienez, ezinbestean eta aurreko urteekin alderatuz, epeetan eta kopuruetan zenbait aldaketa izango dira. Zergetan, zehazki, honakoak dira aldaketak:

- Ibilgailuen gaineko zergan, lehen maiatza amaiera arte izaten bazen borondatezko epea, aurtengoan ekainaren 10etik uztailaren 30arte izango da borondatezko ordainketa egiteko epea.
- Ondasun higiezinaren gaineko zergan, lehen ekaina amaiera arte izaten bazen borondatezko epea, aurtengoan abuztuaren 1etik irailaren 15arte izango da borondatezko ordainketa egiteko epea.

Udaletik beti gomendatzen da zergak helbideratzea, herritarrarentzat erosoagoa delako. Horrela denean, zergaren titularraren bankuetxetik zergaren kobrantza borondatezko epearen azken egunean egiten da. Beste kasuetan, norbera bankuetxera joan beharko da, aipatu epearen barruan, zergaren ordainketa egitera.

Udal tasei dagokienez, urtero bezala, zaborren tasaren kobrantza irailaren amaieran egingo da eta 2020 urterako tasa berriak aplikatuko dira. Udalak zaborrak biltzeko sistema berri bat landu zuen urtearen lehen hiruhilabetearen abian jartzeko eta larrialdiaren ondorioz sistemaren ezarpena atzeratu egin da. Orain berriz, eta Tolosadeako Mankomunitatearekin adostuta, Udalak zabor biltzeko sistema berria ezartzeko garaia iritsi dela uste du, honek onurak ekarriko dituelako zaborren kudeaketan. Adostutako data uztailaren 1a izango da eta hemendik aste batzuetara Udalak informazio kanpaina bat zabalduko du herrian bilketa berriaren informazio zahatza eskeintzeko herritarrei eta sistema berrirako zenbait elementu banatzeko. Dena dela, zenbait jarduera ekonomiko itxita egon dira azken bi hilabeteetan eta Udalak jarduera horiei eskeini ez den zerbitzuagatik dagokion zatia ez die kobratuko.

Gimnasioaren kasuan, berriz, urtearen hasieran urte guztirako bazkidetza egin zutenei kuotaren zati proportzionala itzuliko zaie eta lehen hiruhilabetea ordaindu zutenei gimnasioa hilabete oso batean gehiago erabiltzeko aukera emango zaie.

Eta udal zerga eta tasen inguruko informazioarekin amaitzeko, esan behar da, krisi egoera dela eta, herritarren batek ezin badie zerga eta tasen ordainketei aurre egin, herritarraren eskubidea dela zerga obligazioaren aplazamendua/atzerapena eta frakzionamendua eskatzea. Horrela jokatzeko prozedura araututa dago eta udaletxean prozedura horren berri emango zaio horrelako egoeran dagoen herritarrari.